

BITXIKIAK 2008

BILDUMAZALEEN VI. FERIA 6ª FERIA DEL COLECCIONISMO DE MUNGIA BIZKAIA

APIRILAREN 12 ETA 13an / 12 Y 13 DE ABRIL

Aurten bere, aurreko urteetan lez (hau seigarren urtea dogu), Bildumazaleen Feriak milaka zale eta ikusle batu ditu, piezak trukatu, erosi edota bildumak ikusteko prest guztiak. Izan bere, apirilaren 12an eta 13an egin zan feria hori bildumazaletasunaren eskaparate ederra bihurtu da azken urteotan.





Un año más y van seis ediciones la Feria del Coleccionismo de Mungia congrega a miles de aficionados y público en general ávidos de intercambiar, comprar y contemplar el amplio escaparate sobre coleccionismo que se dio cita durante el fin de semana del 12 y 13 de Abril en Mungia.





Feria apirilaren 12an (zapatua), goizeko 10:45ean, zabaldu zan. Ohorezko aurrekuaren ostean, Mungiako alkatea dan Izaskun Uriagerekak bertaratutakoei eskerrak emon eta Feriaren ezaugarriak azaldu ebazan. Alkatearen berbak entzun eta txakolinagaz brindisa egin ostean, egunari berea emoteko, hamaiketakoa eskaini zan, taloa txorizoagaz eta buzkantzagaz. Hamaiketakoa jan eta indarbarritakoan, feriako gune guztiak zabaldu eta gogor ekin geuntson lanari.





La feria dio comienzo el sábado, día 12, a las 10:45 de la mañana, con el auresku de honor, seguidamente tomó la palabra la alcaldesa de Mungia, Izaskun Uriagereka, dando el recibimiento a los asistentes y explicando a grandes rasgos el funcionamiento de la Feria. A continuación tuvo lugar el brindis con txakoli y un amaietako de talo con chorizo y morcilla, para comenzar la mañana. Con este buen comienzo, quedaron abiertos los diferentes recintos de la Feria.



Truke gunea egun osoan egon zan gori-gori, hainbat eta hainbat truke egin ziran bertan; erosketa gunea bere antzean ibilizan, publiko asko batu eban-eta. Erakusketa gunea izan zan lekurik lasaiena, erakusketak patxadaz ikusi eta gozatzeko aukerea eskaintzen eban.

Desde primera hora la zona de intercambio fue un verdadero hervidero de coleccionistas en el que se realizaban cambios constantes, la zona de compraventa no le fue a la zaga y albergaba de forma continua a numeroso público. En la zona de exposición ya de una forma más sosegada se podían contemplar las diferentes colecciones.



Zapatu ilundian erabagi zan aurtengo bildumarik onenaren saria nori emon. Ferian parte hartu eben alkarteetako ordezkariez osatuta egoan epaimahaiak lan gogorra izen eban irabazlea aukeratzeko, baina azkenean hirugarren edizino honetako saria Moniren

lur-globoen bildumari emotea erabagi eben. Finalistak ondokoak izan ziran: Goyo Garcíaren orrazi bilduma, Nieves Urbanejaren txilin bilduma eta Fernando Fanoren kafe-errotaxuen bilduma.

A última hora de la jornada del sábado se deliberó acerca del premio que ya por tercera vez otorga la organización a la mejor colección de la Feria. El jurado lo compusieron miembros de las diferentes asociaciones que acudieron a la Feria. La ganadora fue Moni con su colección de Globos terráqueos. Fueron finalistas la colección de Cepillos de Goyo García, la de Campanillas de Nieves Urbaneja y la de Molinillos de Fernando Fano.





Hamar eta erdiak aldera, ospakizun-afaria apobetxatuta, emon jakon saria irabazleari.

Domeka goizean, hamarretan zabaldu ziran guneak. Aipatu beharrekoa da ikusle asko eta asko batu zirala erakusketa gunean. Ordu bi eta erdiak aldera, amaitutzat emon zan Feria. Azpimarratu beharrekoa da aurtengo edizinoan batutako ikusle eta zaletu kopurua, izan bere, ikuslez ganezka egon ziran asteburu osoan feriako gune guztiak.

A eso de las diez y media de la noche durante la cena conmemorativa se realizó la entrega del premio.

El domingo por la mañana, desde las diez, quedaron abiertos los diferentes recintos. Destacó de manera notable la gran afluencia de público en las zonas de exposición.

Finalmente a eso de las dos y media se dio por concluida la Feria en la que cabría destacar la gran afluencia de aficionados y público en general que por miles llenaron los diferentes recintos.

Antolatzaileok eskerrak emoten deusueguz Feria arrakastatsu hau prestatzen lagundu deuskuzuen guztioi.

Desde la organización solo nos queda dar las gracias a tod@s I@s que habéis colaborado en que esta Feria sea un éxito.



Eskerrak emoten deutseguz Mungiako Udalari, beti laguntzeko prest izan dogulako, Foru Aldundiari, ezelango irabazbide barik laguntzen ibili diran Bitxikiak alkarteko kideei, enpresei eta komertzioei, euren laguntzagaitik, baita Feria hau hornitzera asagotik etorri zarien guztioi bere.



Gracias al Ayuntamiento por su apoyo incondicional, a la Diputación Foral, a los miembros de Bitxikiak que han trabajado de forma desinteresada, a las diferentes empresas y comercios por su ayuda y por supuesto, a tod@s l@s que venís desde tan lejos para dotar de mayor contenido esta Feria.

Badakigu ze egunetan egingo dan
BILDUMAZALEEN VII. FERIA.

Yá hay fecha para la
7ª FERIA DEL COLECCIONISMO
MUNGIA, BITXIKIAK 2009

APIRILAREN 25 ETA 26

25 Y 26 DE ABRIL

Eta gehiago:

2008eko abenduaren 14an, domekan, egingo da Bitxikiak Bildumazaleen Alkarteak antolatutako 5. Merkatu-Txikia.

Además:

El próximo 14 de Diciembre de 2008, domingo tendrá lugar el 6º Rastrillo Popular organizado por la Asociación de Coleccionistas de Mungia Bitxikiak.

PARA LOS AFICIONADOS AL COLECCIONISMO EN GENERAL.

Mercadillo de intercambio de coleccionismo. Disponen de un tablón de anuncios en donde puedes colocar el tuyo para contactar con otros coleccionistas

Se celebra por la mañana el último domingo de cada mes junto al Ayuntamiento.

Antolatzaileok gauza bakarra daukagu esateko
¡Datorren urtera arte!
Desde la organización solo nos queda decir
¡Hasta el año que viene!